



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

LEIRE GORDO CASTRO

zinegotziak

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2016ko ekainaren 27an, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

171/2016 Dekretua
174/2016 Dekretua
203/2016 Dekretua
213/2016 Dekretua
215/2016 Dekretua
232/2016 Dekretua
237/2016 Dekretua
254/2016 Dekretua
261/2016 Dekretua
269/2016 Dekretua

172/2016 Dekretua
177/2016 Dekretua
205/2016 Dekretua
214/2016 Dekretua
223/2016 Dekretua
234/2016 Dekretua
246/2016 Dekretua
260/2016 Dekretua
264/2016 Dekretua
276/2016 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

279/2016 Dekretua
301/2016 Dekretua

299/2016 Dekretua
313/2016 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

3.- HAUR PARKE BERRIA ERAIKITZEKO EGITASMOAREN ONARPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko, 2016ko laguntzak arautzen dituen araudiaren arabera, Udal honek, laguntza horietara aurkeztuko duen, LIZARTZAKO HAUR PARKE BERRIA ERAIKITZEA izeneko proiektua onartu eta burutzea erabaki da.

Era berean, LIZARTZAKO HAUR PARKE BERRIA ERAIKITZEA izeneko proiektuarentzat, behar hainbat finantzaketa jartzeko konpromezua hartzea, erabaki da.

4.- LUR SAILEN OFIZIOZKO BERRESKURATZE ESPEDIENTEA HASTEA

Luis AGIRRE ZABALAK eta Elena AGIRRE ALBERDIK Lizartzako Udalan aurkeztutako 2. Poligonoko 129 "URRUNTZ BELARDI" eta 130. "OREJALDEKO BELAZEA" lursailen salmenta baimena dela eta, lursaila hauen jabetza Lizartzako udalarenak diren *ondoziilegiak* direla egiazta daiteke.

Horretarako, 2. Poligonoko 129 "URRUNTZ BELARDI" eta 130. "OREJALDEKO BELAZEA" Lur sailen fitxetan, besteak beste honakoa jasotzen da:

"Lurzati hau herri Onurazko Mendien lehen katalogoan barne egon zen, 1898 an ordea gobernuak lurzati hau, beste ARZABALZAZU izeneko lurzatiarekin batera katalogotik kanpo uztea agintzen du gerora salduak izateko. Biana gaur dakigunez ez ziren saldu eta orduan herriaren jabetzakoak izaten jarraitzen izaten dute, nahiz eta gaur egungo katalogoan barne ez egon.

Hau dela eta, guk, jabetza partikularrekoak Arozenaren 270 eta Urdanpiletaren 208 lurzatiak gogartuko ditugu, 129 eta 130 lurzatiak aldiz herriaren jabetzakoak dira."

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Toki Korporazioen Ondasunei buruzko 1372/1986 Errege Dekretuaren 70. artikulua, udalak, jabetza publiko izaera duten ondasunak berreskuratzeko duten ahalmena xedatzen du, beraz, Lizartzako 2. Poligonoko 129 eta 130 lursailak jabetza publikoko ondasunak diren heinean, Udalak, lursail hauek berreskuratu eta bere jabetza aldarrikatzeko egin beharreko prozedura abiarazi beharko du.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Bigarrena.- Tramitazioari dagokionez, Toki Korporazioen Ondasunei buruzko 1372/1986 Errege Dekretuaren 71. artikulua, Errege Dekretu bereko 46. artikulua zehaztutako moduan egin beharko dela dio, hau da, Udal korporazioak espedienteari hasiera eman beharko diola nabarmendu egiten da.

Hirugarrena.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen prozedura arautzen duen 30/1992 Legearen 78. artikulua eta hurrengoak jarraituz, egitateak argitzeko beharrezkoak izango diren eginbideak egin beharko dira, txostenak eta dokumentuak espedientean sartu eta beharrezkoa balitz, lekukotasunak jasoaz.

Behin espedientea izapidetu ondoren, interesatuak diren Luis AGIRRE ZABALA eta Elena AGIRRE ALBERDIri audientzia tramitea eskaini beharko zaie, haien interesen defentsan nahi dutena esan edota frogabideak proposa ditzaten.

Guzti hori kontutan hartuaz, erabaki da:

Lehenengoa.- Lizartzako Udal Batzarrak, Lizartzako herriarenak diren 2. Poligonoko 129 eta 130 lursailen ofiziozko berreskuratze espedientea abiarazteko akordioa hartzea.

Bigarrena.- Egitate hauek argitze aldera, ezinbestekoak eta interesgarriak diren dokumentuak eta txostenak espedientean sartu eta gaia ebatzi aurretik, Luis AGIRRE ZABALA eta Elena AGIRRE ALBERDIri audientzia tramitea ematea.

Hirugarrena.- Behin berreskuratze espedientea ebatzi ondoren, Lizartzako 2. Poligonoko 129 eta 130 lursailak ondozilegiak direla egiaztatzen bada, hauen inskripzioa Jabetzako Erregistroan egitea.

5.- ZINEGOTZIAREN KARGU UZTEA

2016ko ekainaren 25eko datarekin, sarrera eman zitzaion, Zinegotzia den JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA jaunak aurkeztutako idatziari; idatzi horren bitartez, 2015eko maiatzaren 25eko hauteskundeen ondorioz eta 2015eko ekainaren 12an jabetza hartu zuenetik, Udal honetan betetzen zituen karguei uko egiten diela jakinarazi zuen.

Kontutan hartuaz, kargu uztea ez dela indarrean sartuko, Udal Batzarrak onartu bitartetan.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2016ko ekainaren 27ko Idazkaritzaren txostena ikusi ondoren, eta, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren bitartez onartutako Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenaren 9.4 artikulua, eta Hauteskunde Orokorren Erregimena onartzen duen, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182 artikulua diotenaren arabera, Udal Batzarrak, aho batez hurrengoak onartzen du:

ERABAKIA

LEHENA. JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA jaunaren, Udal honetako Zinegotziaren kargu uztea kontutan hartzea.

6.- MOZIOAK

MANDELA ARAUAK

2015eko abenduaren 17an Presoak Tratatzeko Oinarrizko Arauak onetsi zituen, Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak, izen sinboliko bat emanez: Mandela Arauak. Horrela, arautegi hau bultzatu duten Estatuak omenaldia egin nahi diote 27 urtez kartzelaraturako preso politikoari eta ostean Hegoafrikako Presidente izan zen Nelson Mandelari, giza eskubideen alde, berdintasuna, demokrazia eta bakearen kulturaren aldeko bere ondarea goraipatuz.

Mandela Arauak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak aintzat hartzen ditu eta kartzela politika ezartzeko orduan, presoek giza eskubideak babesteko norabidean, eragin eta balio handia dute. Azpimarratzekoa da Mandela Arauek, Tortura eta bestelako *tratu edo zigor anker, gizagabe edo* iraingarrien Hitzarmena hartzen dutela oinarritzat.

Izaera unibertsala eta indar inperatibo eta loteslea izatea helburua duten 122 arau hauek, ondoko oinarrizko printzipioa ezartzen dute: “preso guztiak, euren duintasuna eta gizaki bezala duten berezko balioagatik merezi duten tratamendua jasako dute”. Horren haritik, “kartzela erregimena bideratua dago kartzela bizitza eta askatasuneko bizitzaren arteko tartea minimora gutxitzea” adierazten du, horretarako kartzelako baldintzak duinak izan daitezen katalogo bat agertuz.

Mandela Arauek, besteak beste, presoek osasun tratamendu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidea ere aldarrikatzen dute. Zehazki *59.garren arauak zera adierazten du: “posible den neurrian, presoak bere etxetik edo bergizarteratze lekutik gertu egongo dira”*. NNBBen arau hauen 44garrenak agintzen duenez, isolamendua, “soilik salbuespeneko kasuetan ezarriko da, azken



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

errekurtso gisa, ahalik eta denbora gutxienez eta errebisio independente baten menpe”.

Euskal presoen esperientzian ez da horrela suertatzen: isolamendua sistematikoa bihurtzen da, zigor ohiko eta arrunta da, aplikazio arbitrarioa duena. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen ditu. Azken egun hauetan horren testigantza zuzena jasotzen ari gara: muturreko isolamendu kasuen zerrenda luzea ezagutzen dugu, Arantza Zulueta, Harriet Iragi, Juan Ramón Carasatorre, Aritz Arginzoniz, Juan Carlos Besance, Bittor Franco, Xabier García Gaztelu, Fernando García Jodrá, Sebas Lasa, Iker Lima, Angel López Anta, Aitzol Maurtua, Iker Olabarrieta, Patxi Ruiz, Nerea Bengoa, Irantzu Gallastegi, Gurutz Agirresarobe, Iker Arakama, Rufino Arriaga, Asier Arzallus, Juan Mari Etxebarri, Garikoitz Etxeberria, Jesus Goikoetxea, Roberto Lebrero, Iñigo Vallejo... zerrenda luzea da. Beste aldetik, ezaguna da duela aste batzuk Fresneseko espetxean isolamenduagatik piztutako gatazka eta tentsioa, horren ondorioz gose greba bateko protesta eragin duena.

Nazio Batuek gonbidapen bat luzatzen dute: Nelson Mandelaren Nazioarteko Eguna, uztailak 18ro ospatzen dena, Presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna izan dadin, gartzelaratze baldintza duinak bultzatzeko eta presoak ere gizartearen parte direla agerian uzteko.

Hori dela eta, Udal honek ondokoa erabakitzen du:

- Udal honek bat egiten du Nazio Batuek onetsitako Presoak Tratatze Oinarrizko Mandela Arauekin.
- Udal honek, Euskal Presoei Mandela Arauak aplika dakizkien eskatzen du, besteak beste, gaixo dauden presoek tratu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidearen haritik, dispertsioarekin amaituz.
- Udal honek, Mandela Arauak oinarriztat harturik, zigor ohiko eta arrunt bezala, muturreko isolamenduaren erabilera sistematikoa arbuiatzen du. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen dituela kontuta izanik, egoera hau pairatzen duten presoekin elkartasuna adierazten du udal honek.
- Nazio Batuen gomendioa jarraituz, uztailaren 18a Presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna ospakizuna aintzat hartzen dugu, kartzelaratze baldintza arbitrarioen kontra agertuz eta presoak gizartearen parte ere badirela aldarrikatuz.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

TOLOSALDEA OSASUNGINTZA EREDUAZ

2011tik Euko Jaurlaritzak lankidetzak hitzarmen bat eduki du Inviza ospitale pribatuarekin (Asuncion klinika aurrerantzean) Tolosaldeko ospitale erreferentziala izateko. Nahiz eta Jaurlaritzatik informazio gehiegi ez helarazi, behin baino gehiagotan salatu dugu osasun arreta izaten ari den gainbehera etengabea.

Honetaz gain, bost urte luze hautean, ezagunak izan dira Asuncion Klinikak historikoki duen lau milioi euroko zorra ez ordaintzeko egindako trikimailu mordoa. Hemen ere argi eta garbi utzi dugu gure osasun arreta erdigunean egon behar duela eta ez irabazi ekonomikoen menpe.

2016ko azaroan Jaurlaritzak Asuncion klinikarekin duen hitzarmena bertan behera geratzen da. Momentu historiko baten aurrean gaude. Tolosaldeko herritar eta eragileok sekulako aukera dugu eskualdean nahi dugun osasun arreta erabakitzeke. Urte luzez eskatu dugu eskualdeko eragilez osatutako mahai bat osaketa eta Jaurlaritzak behin eta berriz atek itxi dizkio aukera honi.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak Tolosaldeko herritar eta eragileon bizkar, aldebakartasunez osasun sistema pribatua erdigunean duen sistema bat inposatu nahi digu berriz ere. Hasieratik gure ezezkoa adierazi genion aukera honi eta orain, bost urte geroago egoera hau luzatu nahiko dute Lakuatik.

Horregatik, ondoko eskaera hau egin nahi dio LIZARTZAKo udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

- 1.- Mahai gainean jar ditzala bost urtez indarrean egon den konbenioaren balorazio tekniko zein ekonomikoa xehetasun osoz balorazio osatu bat egiteko aukera izateko.
- 2.- Ireki dezala prozesu partehartzaile bat eskualdeko udal eta herri eragileekin denon artean aurtengo azarotik aurrera jaso nahi dugun osasun arreta denon artean erabakitzeke.

7.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK

Izpta: Leire Gordo Castro

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia